



HEZKUNTZA SAILA  
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Administración y Servicios  
Dirección de Gestión de Personal

**EBAZPENA, 2026KO MARTXOAREN 31EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZARENA, HEZKUNTZAKO IKUSKARI LANPOSTUAK ALDI BATERAKO BETETZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDA EGUNERATZEN DUENA.**

**RESOLUCIÓN DE 31 DE MARZO DE 2026 DE LA DIRECCIÓN DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE ACTUALIZAN LOS LISTADOS DE CANDIDATAS Y CANDIDATOS PARA EL DESEMPEÑO TEMPORAL DE PUESTOS DE TRABAJO DE INSPECTORA O INSPECTOR DE EDUCACIÓN.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 25. artikuluan ezarritakoaren arabera (2016ko uztailaren 4ko EHAA), ikuskari-lanpostuak aldi baterako beteko dira Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan aldi baterako beharrak betetzeko hautagaien zerrendan daudenen artean.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 25 del Decreto 98/2016, de 28 de junio, de la Inspección de Educación en la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV de 4 de julio de 2016), la cobertura de puestos de trabajo con carácter temporal de inspectores e inspectoras se realizará entre quienes formen parte de la lista de candidatos y candidatas para la cobertura de necesidades de carácter temporal en los puestos de trabajo de la Inspección de Educación.

Zerrenda honako kolektibo hauek osatzen dute, lehenetasun-ordenaren arabera zerrendatuta:

La lista está formada por los siguientes colectivos de personas, relacionados por orden de prioridad:

A) Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoan sartzeko hautaketa-prozesu bateko **oposizio-fasea gainditu duten izangaiak** eta Hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera ordenatutako plazarik lortu ez dutenak. Hautagaien zerrenda hainbat hautaketa-prozesutatik datozen pertsonen osatzen dutenean, zerrendan antzinatean handiena izatearen irizpidearen arabera antolatuko dira.

A) **Aspirantes que hayan aprobado la fase de oposición** de un proceso selectivo para acceso al Cuerpo de Inspectores e Inspectoras de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco y no hayan obtenido plaza ordenados de acuerdo con la puntuación obtenida en el proceso selectivo. Cuando la lista de candidatos y candidatas estuviera integrada por personas procedentes de diferentes procesos selectivos, la ordenación de las mismas obedecerá al criterio de mayor antigüedad en la lista.

B) **Ikuskaritzako lanpostuetan aritu direnak eta lanpostu horiek utzi dituztenak**, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan emandako zerbitzudenbora handienetik laburrenera ordenatuko dira. Berdinketa gertatuz gero, berdinketa hausteko lehenengo irizpidea karrerako irakasle funtzionario gisa emandako denbora izango da, eta berdinketarekin jarraituz gero, irakasle gisa emandako denbora osoa. Ikuskapen-eginkizuna betetzean aurkako ebaluazioa jaso duena hautagaien zerrendatik kanpo geratuko da.

B) **Quienes hayan desempeñado servicios en puestos de Inspección y cesen en los mismos**, se ordenarán según el orden de mayor a menor tiempo de servicio prestado en los puestos de trabajo de la Inspección de Educación. En caso de empate, se utilizará como primer criterio de desempate el tiempo de servicio como personal docente funcionario de carrera y de continuar el empate, se utilizará como segundo criterio el tiempo total de servicios como personal docente. Quien haya sido evaluado desfavorablemente en el desarrollo del desempeño de la función inspectora, quedará excluido de la lista de candidatos y candidatas.

C) **Hezkuntza Ikuskaritzan plaza libreak zerbitzu-eginkizunetan betetzeko egindako deialdiren**

C) **Candidatos y candidatas que, habiéndose presentado a alguna de las convocatorias**



batera aurkeztu diren hautagaiak, deialdian ezarritako gutxieneko baldintzak gainditu dituztenak eta lanposturik lortu ez dutenak, lanpostuak betetzeko deialdian lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuta. Azken kasu horretan, puntuazioaren guztizkoan bi hautagairen edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, baremoko atal bakoitzean puntuaziorik altuena lortuz ebatziko da, hurrenez hurren, baremoan agertzen diren hurrenkeraren arabera. Berdinketak jarraitzen badu, azpiataletan lortutako puntuazioa hartuko da kontuan, baremoan agertzen diren ordenaren arabera.

Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza honen 2025eko urriaren 22ko Ebazpenak behin betiko ebatzi zuen Gipuzkoako lurralde-unitatean hiru lanpostu (bi Donostiako egoitzan eta bestea Eibarko egoitzan) betetzeko zerbitzu-eginkizunen deialdia, bai eta Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuak aldi baterako betetzeko hautagaien zerrendak zabaltzea ere.

Araba, Bizkaia zein Gipuzkoako lurraldeetan, orduz geroztik, hainbat lanpostu esleitu dira aldi baterako betetzeko. Gainera, datorren hilean zerbitzu-eginkizunetarako deialdi berri bat argitaratuko dela aurreikusita eta prozesu horri begira, ondorioz, ordezkapenen zerrendak eguneratu egin behar dira, bertan parte hartzen duten pertsonekin eta dagokien lehentasun-ordenarekin.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 11. artikulua 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau

#### **EBAZTEN DUT**

**Bakarra.-** Ebazpen honen datatik aurrera sortzen diren Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan aldi baterako beharrak betetzeko hautagaien zerrendak eguneratzea onartzea, hautagaiek adierazitako lurralde-lehentasuna eta jatorrizko kolektiboa adierazita, 98/2016 Dekretuaren 25.2 artikuluan

realizadas para la cobertura en régimen de comisión de servicios de plazas libres en la Inspección de Educación, hayan superado los requisitos mínimos establecidos en la convocatoria y no hayan obtenido ningún puesto, ordenados atendiendo a la puntuación total obtenida en la convocatoria de provisión. En este último caso si hubiera empate entre dos o más candidatos o candidatas en el total de la puntuación, éste se resolverá atendiendo, sucesivamente, a la mayor puntuación en cada uno de los apartados del baremo, conforme al orden en que aparecen en el mismo. Si persistiera el empate se atenderá a la puntuación obtenida en los distintos subapartados por el orden en que aparecen en el baremo.

Mediante Resolución de 22 de octubre de 2025, de esta Dirección de Gestión de Personal fue resuelta definitivamente la convocatoria de comisión de servicios para la cobertura de tres puestos de trabajo en la unidad territorial de Gipuzkoa (dos en la sede de Donostia y el otro en la sede de Eibar) y, así mismo, la ampliación de las listas de candidatas y candidatos para el desempeño temporal de los puestos de trabajo en la Inspección de Educación.

En los territorios de tanto Araba, Bizkaia como Gipuzkoa han sido realizadas, desde entonces, varias adjudicaciones de puestos de trabajo para su cobertura con carácter temporal. En previsión de la publicación de una nueva convocatoria de comisión de servicios el próximo mes y en atención a ello, en consecuencia, han de actualizarse los listados de sustituciones con las personas que forman parte de los mismos y con el orden de prelación correspondiente.

Atendiendo a todo lo expuesto y, en virtud de lo dispuesto en el artículo 11, apartados 1 y 2, del Decreto 381/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación,

#### **RESUELVO**

**Único.-** Aprobar la actualización de las listas de candidatas y candidatos para la cobertura de necesidades de carácter temporal en los puestos de trabajo de la Inspección de Educación que surjan a partir de la fecha de la presente resolución, indicando la prioridad territorial expresada por las personas candidatas, así como su colectivo de



ezarritakoaren arabera. Zerrendak ebazpen honen Eranskinean gehitzen dira.

origen en virtud de lo establecido en el artículo 25.2 del Decreto 98/2016, recogidas en el Anexo adjunto a la presente Resolución.

### HELEGITEAK

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

### RECURSOS

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Administración y Servicios en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación, con arreglo a lo dispuesto en los artículos 121 y siguientes, de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 31n

Unai Nieto Marijuan

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**



## ERANSKINA / ANEXO

HEZKUNTZAKO IKUSKARITZAKO LANPOSTUAK ALDI BATERAKO BETETZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDAK,  
HURRENKERAREKIN /PERSONAS CANDIDATAS QUE INTEGRAN LOS LISTADOS, CON ORDEN DE PRELACIÓN, PARA EL DESEMPEÑO  
TEMPORAL DE PUESTOS DE INSPECCIÓN DE EDUCACIÓNLURRALDEA / TERRITORIO: ARABA

Hurrenkera / Orden	IZEN ABIZENAK eta NANa / NOMBRE, APELLIDOS y DNI	LEHENTASUNA PRIORIDAD
-	-	-

LURRALDEA / TERRITORIO: BIZKAIA

Hurrenkera / Orden	IZEN ABIZENAK eta NANa / NOMBRE, APELLIDOS y DNI	LEHENTASUNA PRIORIDAD
1	Jon Gezuraga Arrate ***8450**	C
2	Marta de Miguel Barcena ***1453**	C

LURRALDEA / TERRTORIO: GIPUZKOA

## DONOSTIA

Hurrenkera / Orden	IZEN ABIZENAK eta NANa / NOMBRE, APELLIDOS y DNI	LEHENTASUNA PRIORIDAD
-	-	-

LURRALDEA / TERRITORIO: GIPUZKOA

## EIBAR

Hurrenkera / Orden	IZEN ABIZENAK eta NANa / NOMBRE, APELLIDOS y DNI	LEHENTASUNA PRIORIDAD
1	Jon Gezuraga Arrate ***8450**	C